

Ba. gin en

EUSKAL HERRIKO
HISTORIA
EMAKUMEEN
BITARTEZ

CIRA CRESPO
ELENA CIORDIA

txalaparta



BAGINEN EUSKAL HERRIKO HISTORIA EMAKUMEEN BITARTEZ

EKAINA
2020

Cira Crespo - Elena Ciordia

Izan ginela badakigunez, nor izan ginen eta zer egin genuen galde-tu behar. Horiei erantzun nahian, artxibo lan zorrotza egin dute Cira Crespo historialariak eta Elena Ciordia ilustratzaileak kutsu literarioko azterlan hau eraikitzeko. Historiaurretik abiatu eta gure garaira arte, berrogeita hamar emakume baino gehiago aurkezten dizkigute, norbanakoak eta taldeak, betiere bizirik ez daudenak, bizi direnak beren historia idazten ari baitira oraindik. Helburua, argia: zenbait emakumeren bizitza ezagutarazte hutsetik harago, historia kolektibo bat eraikitzeko oinarriak jartzea, hots, Euskal Herriko iruditeria zimenduetatik eraberritzea.

Norbanakoen eta kolektiboen izenen bitartez, historiari identifikazio bat jartzen zaio, eta horrek irakurleari lagunduko dio harekiko posizio bat hartzen; ilustrazioak, berriz, tresna historiko aparta dira emakumeon presentzia gorpuztuaren kontzientzia hartzeko eta garai jakin batekin lotzeko. Horrela, ordena kronologikoan aurkezten zaizkigu baronesak, hiltzaileak, bertsolariak, eraikuntzako langileak, inprimatzaileak, kontrabandistak, medikuak, taberna-riak, artistak, bai eta senide, alaba, alargun eta amak ere. Dibulgaziozko lan ilustratu hau historia birpentsatzeko oinarri ezinbestekoa da, ahalik eta kontaketa osoenaren bidean.

SAIKERA ILUSTRATUA

ISBN: 978-84-18252-03-7

ORRIALDEAK: 150 (inguru)

FORMATUA: 17 x 24

PREZIOA: 19,00 €

Zorrotz dokumentaturiko testuak eta akuarela ikusgarriak uztartu dituzte Elena Ciordia ilustratzaileak eta Cira Crespo historialariak. Historiaren tresneria goitik behera berritu nahi dute, gure imajinarioa erreferentziekin elikatze eta emakume hauek sekula berriz ezin bazter uzteko moduan gure kontaktan integratzeko.



CIRA CRESPO

(Bartzelona, 1980). Historian doktorea da, Antzinaroa adarrean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Badira hamar urte Euskal Herrian bizi dela, eta bertan hasi da beste gai batzuk lantzen. Amatasunaren eta emakumearen historiaren dibulgazioan jardun du batez ere; ildo beretik, besteak beste, *Maternalias. De la historia de la maternidad* (Ed Obstare, 2013) monografia kaleratu du, eta *Mujeres que cambiaron la Historia* (2018) eta *La mujer en la Antigüedad Clásica* (2015) kultur ikastaroak prestatu eta eman ditu Gasteizko gizarte-etxeetan. Amen artean tailerrak ere antolatu ditu Jabetze Feministarako Eskolan. Hainbat he-dabidetan parte hartu du; azkenaldian, esate batera, *Alea* astekariko zutabegile dabil.



ELENA CIORDIA

(Ortuella, 1964). Ortuellan jaio bazen ere, Gorrizen bizi da azken 20 urteotan. Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean, pintura espezialitatearekin, eta hainbat erakusketak egin ditu, bai berak bakarrik eta bai taldean (Bartzelona, Madril, Bilbo, Valentzia, Valladolid eta abar). Norbanakoentzat eta zenbait museo eta instituziotarako lanak egin ditu, esate batera, Naif Arteko Nazioarteko Museoa (Jaen), Posta eta telegrafo Museoa (Madril) eta Bilboko Ospitalea. Azken urteotan, ilustrazioa landu du gehienbat; bide horretan, zenbait liburu ilustratu ditu, kasurako, *Guggenheim Bilbao Experience* (Guggenheim museoa), *30 emakume ahaztezin* (Emakunde) eta *IV. Bizkaldatz Txikia* (Bizkaiko Foru Aldundia).



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus